# Euskalkiak eta azpieuskalkiak




Euskararen eremuaren muga 1850-1870 epean (L-L. Bonaparte)



**ZUBEROTARRA**





**MENDEBALEKOA**

- Sartaldeko azpieuskalkia
- Sortaldeko azpieuskalkia
- Sartalde eta sortaldeko azpieuskalkien tarteko hizkerak
- Mendebaleko eta erdialdeko euskalkien tarteko hizkerak

**ERDIALDEKOA**

- Sartaldeko azpieuskalkia
- Erdiguneko azpieuskalkia
- Sartalde eta erdiguneko azpieuskalkien tarteko hizkerak
- Sortaldeko azpieuskalkia (erdialdekoaren eta nafarraren tarteko eremua)





**NAFARRA**

- Ipar-sartaldeko azpieuskalkia
- Hego-sartaldeko azpieuskalkia
- Erdiguneko azpieuskalkia
- Sortaldeko azpieuskalkia
- Burunda (mendebalekoaren, erdialdekoaren eta nafarraren tarteko hizkera)
- Baztan (nafarraren eta nafar-lapurtarraren tarteko hizkera)
- Aezkoa (nafarraren, ekialdeko nafarraren eta nafar-lapurtarraren tarteko hizkera)

**NAFAR-LAPURTARRA**

- Sartaldeko azpieuskalkia
- Sortaldeko azpieuskalkia
- Sartalde eta sortaldeko azpieuskalkien tarteko hizkerak
- Kostatarra (erdialdekoaren eta nafar-lapurtarraren tarteko hizkera)
- Amikuze (nafar-lapurtarraren eta zuberotarraren tarteko hizkera)

Euskararen gaur egungo *bost euskalkiak* erakusten dira mapa honetan: mendebalekoa (Bizkaian, Arabako iparraldean eta Gipuzkoako mendebalean mintzatua), erdialdekoa (Gipuzkoan eta Nafarroako mendebalean mintzatua), nafarra (Nafarroa gehienean mintzatua), nafar-lapurtarra (Lapurdin, Nafarroa Beherean, Zuberoako ipar-mendebalean eta Nafarroako Luzaiden mintzatua) eta zuberotarra (Zuberoan eta Biarnoko alderdi batean mintzatua). Azken hamarkadotan galdu da ekialdeko nafarra, Zaraitzu eta Erronkari ibarretan mintzo zena.

Kolore tonalitate desberdinekin, berriz, euskalki horietan diren *hamaika azpieuskalkiak* agertzen dira: bi dira mendebalekoan, hiru erdialdekoan, bi nafar-lapurtarrean eta lau nafarrean. Oso homogeneoa da zuberotarra. Lerroen bidez, azkenik, *tarteko hizkerak* erakusten dira, hau da, euskalki biren edo gehiagoren ezaugarriak aldi berean dituztenak. Nafarroako Aezkoa eta Burunda ibarretakoak dira denetan berezienak: hiru euskalkiren arteko lotura egiten dute.

Oso hizkuntza berezia da euskara, ez baita ez latindarra ez indoeuroparra, inguruko guztiak bezala. Harritzekoa da bizirik iraun izana, hizkuntza txikia delako, eta oso handiak, berriz, haren ondoko frantsesa eta gaztelania. XVIII. mendeaz gero, gainera, bi horiexek ezarri dira Frantzia eta Espainiako estatu-hizkuntza, eta guztiz baztertu dira gainerakoak: katalana, bretoia, alemana, okzitaniera... Euskarari dagokionez, bereziki gogorra izan zen 1936-39 bitarteko Espainiako Gerra Zibila eta, haren ondoren, 1975 arte iraun zuen Francoren diktadura militarra: erabat desagertzeko zorian egon zen. Hobera egin du azken hamarkadotan, nahiz eta Nafarroan eta Frantziako estatuko hiru herrialdeetan (Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa) oraindik ere oso egoera larrian dagoen.

Euskarak izan duen atzerakadaren lekuko, Louis-Lucien Bonaparteren mapan (1850-1870) euskarak zeuzkan mugak ere erakusten dira, eta agerian gelditzen da Araban eta Nafarroan izan den atzerakada. Puntu bidez adierazten da eremu hori.

© KOLDO ZUAZO
© EUSKAL EDITOREA E. M.
© ELKARLANEAN, S.L.

GRAFIKOAK
Koldo Zuazo, Joxean Apeztegia, Udane Ansa

Koldo Zuazok idatzi eta Elkar-ek argitaraturiko “Euskalkiak. Euskararen dialektoak” liburuaren osagarria.

ESKALA
0 2 4 6 8 10 12 14 16 km

elkar